



Arartekoaren 2020S-575-20 Ebazpena, 2020ko maiatzaren 7koa. Horren bidez, Gasteizko Udalari gomendatzen zaio zenbait neurri ezartzeko Olarizu etorbideko 21 Zabalgunea sozietatearen jabetzakoa den eraikineko egoera konpontzeko.

Aurrekariak

1. Arartekoak elkarte batek idatzitako kexa jaso zuen. Horren bitartez, azaldu zuten, koronabirusa dela-eta, Olarizu etorbideko etxeetako higiene arazoa areagotu egin dela, uraren eta energia elektrikoaren hornidurarik ez dutelako.

Zehazki, kexagileak adierazi zuen etsita dagoela, izan ere, ezin dituzte bete aholkatutako garbitasun neurriak, eta galdetu zuen, nola konpondu daitekeen arazoa edo nola arindu daitekeen, ezin baldin badituzte derrigorrez bete beharrekoak egin, besteak beste, ezin badituzte eskuak garbitu, urik ez dutelako.

Horregatik, Arartekoari esku-hartzeko eskatu zieten, berehala konponbide bat aurkitzeko eta udalak ura eta argia berrezartzeko, alarma egoerak irauten duen bitartean.

2. Kexaren xedea aztertu ondoren, eta erreklamazio honi beharrezko izapidetzea emate aldera, Arartekoak Gasteizko Udalari lankidetzan aritzeko eskatu zion, eskatuz, salbuespen egoera honetan eta arrazoi humanitarioak direla-eta, egoera juridikotik haratago, beharrezko neurriak aztertzeko eta ezartzeko, eta kexaren inguruko iritzia emateko.
3. Eskaera horri erantzunez udalak zera jakinarazi zigun:

Udalak jakinarazi zuen Olarizu etorbideko etxeak, gaur egun, 21 Zabalgunea sozietatearen titulartasunekoak direla. Sozietate publiko horretako administrazio kontseiluak Olarizuko etxeetako jabetza lagapena Gasteizko Udalaren alde onetsi zuen, baina Tokiko Gobernu Batzarrak oraindik ez du lagapena onartzeko ebazpenik egin.

Erantzunean, udalak *"Documento técnico de recomendaciones de actuación de los servicios sociales ante la crisis por covid-19, en asentamientos segregados y altamente vulnerables"* erreferentziatzen hartu zuen. Bertan, zenbait gomendio daude zehaztuta gizarte zerbitzuentzat, auzo zaurgarrienetan martxoaren 17an Espainiako Gobernuak onetsitako gizarte neurriak (8/2020 Legegintza Errege Dekretua) berehala aplikatzen direla bermatzeko.

Horri dagokionez, lehenik eta behin, agiri horren 3.2. atalean hauxe dago jasota hitzez hitz:





*“Los ayuntamientos **garantizarán seguimiento socio-sanitario** con la periodicidad suficiente como para atender adecuadamente la situación de las familias afectadas.”*

Ondorio horietarako, baieztatu dute gomendio hori gaur egun gizarte zerbitzuek Olarizuko etxeetan bizi diren pertsonen zuzenduta egiten dituzten jarduketetan zehazten dela, eta horiek, era berean, laguntza jasotzeko interesa erakutsi dutela.

Adierazi dute, udalak beharrezko gizarte arreta ematen jarraitzen duela balorazio teknikoaren ondoren, banakako eta/edo familiako egoeraren arabera, eta hori guztia, oinarritzko gizarte zerbitzuen eta GLUZ-ren bidez, kalean lan egiten duten hezitzaileak Olarizun bizi direnekin harremanetan jarraitzen dutelarik.

Horrez gain adierazi zuten, Olarizuko etxeetan bizi diren pertsonen behin eta berriz esan dietela udaleko gizarte zerbitzuetara joateko eta beraien beharrak azaltzeko, ez bakarrik etxebizitzari lotutakoak, baita ekonomikoak eta sozialak ere.

Bigarrenik, adierazi zuten, 3.2. atalean **hauxe dagoela** jasota: *“los Ayuntamientos garanticen los suministros básicos (agua, luz, gas, etc.) de acuerdo con el artículo 4 del RD-L 8/2020, de 17 de marzo, de medidas urgentes extraordinarias para hacer frente al impacto económico y social del COVID-19.”*

Udalaren ustez, 4. artikulua Olarizuko etxeetako ez den gertakari bat azaltzen du, izan ere, han, *“establece la prohibición a los suministradores de energía eléctrica, gas natural y agua de suspender el suministro a aquellos consumidores en los que concurra la condición de consumidor vulnerable, vulnerable severo o en riesgo de exclusión social, cuando resulta que en las casas de Olarizu el suministro fue eliminado hace casi un año.”*

Olarizuko etxeei dagokienez, hauxe dago jasota: *“actualmente se encuentran ocupadas por un número indeterminado de personas y que las mismas no reúnen las condiciones mínimas de habitabilidad desde hace al menos, 10 años”.*

Era berean azaltzen da, *“que tanto la Policía local como el Servicio de extinción de incendios se han hecho eco de varias irregularidades (colocación de estufas sin ninguna garantía técnica; roturas de tabiques de separación entre viviendas; arranque de ventanas; etc.) que no han hecho sino perjudicar el estado de las casas.”*

Gasteizko Udalak adierazi zuen, testuinguru horretan, hornidurak berrezartzeak (orain dela ia urtebete kendu zirenak) arazoa areagotuko lukeela, eta beste





arrazoi batzuen artean, horren ondorioz, ez litzatekeela bideragarria izango Ararteko honek kexari buruz egindako proposamen zehatza ezartzea.

Bukatzeko, alkateak orain dela gutxi egindako agerraldi publiko bat aipatzen da. Bertan, esan zuen okupazio ilegalaren aurka dagoela, eta irtenbidea udaleko gizarte zerbitzuetara joatea dela, beraien etxebizitza beharren eta oinarrizko beharren inguruan arreta jasotzeko, eta gizarteratze prozesu batean parte hartzeko, eta esan zuen, jada familia batzuk gizarte esku-hartzeko prozesuan parte hartzen ari direla.

Informazio hori ikusita eta han adierazitakoa aztertu ondoren, Arartekoak honako gogoeta hauek egin ditu:

Gogoetak

1. Kexa honen xedea elkarteak aurkeztutako erreklamazioa da. Horren bitartez, azaldu zuten, koronabirusa dela-eta, Olarizu etorbideko etxeetako higiene arazoa areagotu egin dela, uraren eta energia elektrikoaren hornidurarik ez dutelako.
2. Udalak adierazi zuen moduan, *"Documento técnico de recomendaciones de actuación de los servicios sociales ante la crisis por covid-19, en asentamientos segregados y altamente vulnerables"* agirian zenbait gomendio daude zehaztuta gizarte zerbitzuentzat, auzo zaugarrienetan martxoaren 17an Espainiako Gobernuak onetsitako gizarte neurriak (8/2020 Legegintza Errege Dekretua) berehala aplikatzen direla bermatzeko.

Horietako batean jasota dago, udalek oinarrizko hornidurak bermatu behar dituztela (ura, argia, gasa, eta abar.), COVID-19-aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko berehalako neurri berezien martxoaren 17ko 8/2020 ELDren **4. artikuluekin** bat eginez.

Udalak esan zuen artikulua hori ez dela kasu honetan aplikatu behar, eta beraz, udalak ez du bideragarritzat jotzen ur eta elektrizitate hornidurak berrezartzea. Adierazi zuten, horiek berrezartzean, etxebizitza horietan arriskua gehituko litzatekeela, gaur egun ez baitituzte gutxieneko bizigarritasun baldintzak betetzen, eta udalak eskainitako irtenbidea izan zen gizarte zerbitzuetara jotzea.

Azken finean, udal honek zerbitzu horiek ez berrezartzearen arrazoia higiezinaren segurtasunarekin daude lotuta.

Udalari, jabe gisa eta hirigintza diziplina alorreko erakunde eskumendun gisa, dagokio etxebizitza horietan segurtasun, osasun, egokitasun eta itxura publikoko baldintzak mantentzea, eta horretarako, etxebizitzak





kontserbatzeko edo eraberritzeko lanak eta obrak egiten dituzte, bizigarritasun baldintzak edo erabilera eraginkorreko betekizunak mantenduz.

3. Udalak eskumenak ditu baita ere gizarte zerbitzuetan, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legean araututako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barne baitago. Horren helburua (6. art.), herritar guztien gizarte ongizatea bermatzea da, bestelako sistema publikoekin lankidetzan eta modu koordinatuan. Zehazki, beste sistema publiko batzuekin lankidetzan eta koordinazioan aritzea ezinbestekoa da Olarizuko etxebizitzetako arazoak konpontzeko.

Zehatzago, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak honako xedeak ditu:

- a) Pertsonen autonomia sustatzea eta mendetasun-egoerek pertsoneri eta familiei eragiten dizkieten beharriaz aurre hartu eta erantzutea.*
- b) Babesgabezia-egoerek eragiten dituzten beharriaz aurre hartu eta erantzutea.*
- c) Azterketa-egoerei aurre hartu eta erantzutea eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.*
- d) Larrialdi-egoerek pertsoneri eta familiei eragiten dizkieten beharriaz aurre hartu eta erantzutea."*

Legeak banatzen ditu Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osatzen duten administrazioen eskumenak. Udaleko gizarte zerbitzuek, 28. artikuluan xedatutako aurreikuspenarekin bat eginez, laguntza teknikoko zereginak, beste sistema batzuekiko koordinazioa edo gizarte ongizatea lortzeko politika publikoak edo politika osagarriak gauzatu dituzte, eta horrez gain, legean aurreikusitako zerbitzuak eta prestazioak kudeatzen dituzte, Prestazioen eta zerbitzuen katalogoan jasota daudenak. Katalogoa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioen eta zerbitzuen zorroaren urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren bitartez ezarri zen. Dekretu horretan jasota daude euskal administrazio publikoek dituzten betebeharrak, prestazioen zuzkiduraren eta administrazio maila bakoitzeko zerbitzuen arabera.

Olarizuko eraikina okupatu duten familiek eta pertsonak ez dute etxebizitza egokirik beraien beharrak betetzeko, eta beraz, eraikin horretako etxebizitzetan bizitzearen aukera, nahiz eta oinarritzko hornidura zerbitzuak bermatuta ez izan edo gutxieneko bizigarritasun baldintzarik ez izan, beraien inguruabar berezietan, eskuragarri duten irtenbideetako bat da.

Udalaren txostenean, irtenbide bakar gisa udaleko gizarte zerbitzuek esku-hartzea dago jasota, zerbitzu publiko horiek beraien ohiko lanean egikaritu ditzaketan erantzunez gain. Udaleko gizarte zerbitzuek denbora luzea daramate eraikin horietan bizi diren familiekin lanean eta zerbitzuak eta prestazioak eskaintzen dizkiete, eta horrek ez du oztopatu edo galarazi





pertsona eta famili batzuk etxebizitzak okupatzen jarraitzea, ez baitute beste ostatu aukerarik beraien beharrak betetzeko.

Jaso genuen erantzunarekin egiaztatu dugu Covid-19-aren ondoriozko krisi sanitarioa kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Dekretuan aurreikusitako betekizunak betetzen ez dituzten etxebizitzetan bizi diren familiak eta pertsonak daudela, eta era berean, ez dituztela ezta ere COVID 19-aren inpaktu ekonomikoari eta sozialari aurre egiteko larrialdizko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Legegintza Errege Dekretuan jasotakoaren arabera, arreta jasotzeko betekizunak betetzen. Egoera hori ikusirik, derrigorrezkoa da larrialdi egoera honi erantzuna ematea salbuespenezko neurrien bitartez. Neurri horiek baliogarriak izango dira gaur egungo egoeraren baldintzak betetzeko, eta era berean, Olarizuko etxebizitzaren arazorako irtenbide bidezkoa lortzeko jarduketak hastea aurreikusiko da, gure gizartearen parametro legezkoak, sozialak eta humanitarioak betez.

4. COVID 19-aren inpaktu ekonomikoari eta sozialari aurre egiteko larrialdizko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Legegintza Errege Dekretuaren 4. artikuluan aurreikusitakotik haratago, egoera honetan aplikatu behar den edo ez den albo batera utzita, jasotako erantzunean adierazi den moduan, azpimarratu behar da, Arartekoari bidalitako idazkian, salbuespen egoera honetako arrazoi humanitarioak azaltzen zirela, eta, egoera juridikotik haratago, eskatzen zutela egokitzat jotzen zituzten neurriak aztertzeko eta ezartzeko, Ararteko honen ustez, **infraetxeen** kasu zehatz hauetan, alarma egoerak ezarritako konfinamenduaren ondorioz, egoera are zailagoa baita.
5. Bestalde, ura eta etxebizitza izatearen garrantzia ezinbestekoa da Koronabirus Sars-Covid-19-aren aurka egiteko. Hala, Espainiako gobernuak adierazi zuen ur edangarria etxeetan hornitzeko zerbitzua ezinbesteko zerbitzua dela eta bermatu egin behar dela, bereziki, gaur egungo inguruabarretan. Horregatik, oinarrizko zerbitzua delako, debekatu egin da ur hornidura etetea kontratu urraketak direla-eta, zaurgarriak diren kontsumitzaileei dagokienez.

Udalak badaki hori garrantzitsua dela, izan ere, ur edangarriaren zerbitzu publikoa ematen duen udalaren enpresak, bere webgunean jasotzen du Gobernu Zentralak eta Eusko Jaurlaritzak ezarritako neurriak direla-eta, eta udaletan ezarritako arauekin bat eginez, lanean ari direla alarma egoeran zehar herritar guztiek ur hornidura izan dezaten. Hala, enpresan, bi astean zehar ez dizkiete hornidura mozketarik egin fakturak ordaintzen ez dituzten partikularrei, eta hala eskatu duten eta zerbitzurik ez zuten pertsonen zerbitzua jartzeko lanean ari dira.

Bere aldetik, etxebizitza egokiei buruzko Nazio Batuen errelatore bereziak, Leilani Farha-k, pandemia hasi zenean hauxe esan zuen: *"La vivienda se ha convertido en la primera línea de defensa frente al coronavirus"*.





Horri dagokionez, Nazio Batuen Erakundeko adituek (horien artean dago ur edangarria eta saneamendua izateko giza eskubideei buruzko errelatore berezia) hauxe esan dute orain dela gutxi: *"el Covid 19 no se detendrá sin proporcionar agua potable a las personas que viven en situación de vulnerabilidad."*

Izan ere, berariaz, hauxe uste dute: *"los gobiernos de todo el mundo deben proporcionar acceso continuo a agua suficiente para sus poblaciones que viven en las condiciones más vulnerables"*.

Horregatik guztiagatik, hauxe defendatzen dute: *"las personas que viven en asentamientos informales, las personas sin hogar, las poblaciones rurales, las mujeres, los niños, las personas mayores, las personas con discapacidad, los migrantes, los refugiados y todos los demás grupos vulnerables a los efectos de la pandemia deben tener acceso continuo a agua suficiente y asequible."*¹

6. Testuinguru horretan, ez da ahaztu behar Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak berak 1995. urtean ezarri zuela pertsona guztiek ur nahikoa, osasuntsua, onargarria, irisgarria eta norberaren eta etxerako erabilerarako eskuragarria izateko duten eskubidea dutela, eta eskubide hori Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 11. artikulua lehengo lerrokadan sartzen zela.

Ildo horretatik, Batzordeak argudiatu zuen ur-hornidura bizi-maila egokia bermatzeko behar diren bermeei lotuta dagoela ezinbestean. Gainera, eskubide hori Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunean jasotako beste eskubide batzuekin batera aintzatetsi behar da eta, eskubide horien artean, bizitzeko eta giza duintasunerako eskubidea dago.

Izan ere, hornidura eskuratzeari eta edukitzeari dagokionez, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak honako hau adierazi du: *"Ura eta ur-zerbitzu eta -instalazioak irisgarriak izan behar dira pertsona guztientzat, egitatez eta zuzenbidez, baita biztanleriako sektore ahulenentzat eta baztertuenentzat ere, debekatutako edozein arrazorengatik inolako diskriminaziorik egin gabe."*²

Horregatik guztiagatik, ura eskuratzeko erraztasunak emateko neurri positiboak hartu behar dira, norbanakoek eta erkidegoek eskubidea egikaritu ahal izan

7. Azaldutakoa ikusirik, Arartekoaren iritziz, ez da koherentea, gaur egungo egoeran, eraikineko segurtasun arazoak alegatzea ur hornidura ez emateko, era

¹ Nazio Batuen Erakundea. "COVID-19-a ez da geldituko zaugarritasun egoeran bizi diren pertsonen ur edangarria ematen ez baldin bazaie, NBEko adituen arabera." [Webgunean eskuragarri]:

<https://www.ohchr.org/EN/NewsEvents/Pages/DisplayNews.aspx?NewsID=25738&LangID=E>

² Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea. "Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren aplikazioan planteatzen diren gaiak". [Irisgarria online: <https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/BDL/2012/8789.pdf>]



berean, une honetan ezinbestekoa dena Sars-Covid19-aren hedapenari aurre egiteko, izan ere, segurtasun ezeko egoera hori berdina izango da, ur hornidura izan edo ez izan.

Arartekoak adierazi duen moduan, orain, inoiz baino gehiago, etxebizitza bizitzarako oinarrizko eskubidea bermatzearen barneko elementua da, Espainiako Konstituzioaren 15. artikuluan aintzatetsita dagoena.

Gainera, EAEn, autonomia erkidegoak duen eskumena egikaritzuz, aratu da etxebizitza duina eta egokia disfrutatzeko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 47. artikuluan jasota dagoena, eta hori egin du Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen bitartez (aurrerantzean 3/2015 Legea). Horren bidez ezartzen da etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubide subjektiboa. Modu horretan, 3/2015 Legearen 1.2. artikulua bitartez, botere publikoei eskubide hori egikaritzeko beharrezko neurriak sustatzeko eskatzen zaie, irizpide hauekin bat eginez:

- “a) Etxebizitza egoitza, bizileku edo etxe egonkorra izatea, eta haren hartzaile edo erabiltzaileek modua edukitzea bertan duintasunez bizitzeko, beren intimitatea babesteko eta familia- eta gizarte-harremanez gozatzeko, hura okupatu eta erabiltzeko legezko eskubidea dutelarik.*
- b) Tamainari dagokionez, bertan biziko den pertsona, familia edo bizikidetzaren unitatearen ezaugarrietarako egokia izatea, horien bizitzako aldiak eta bizitegi-premiak kontuan hartuta eta gizonen eta emakumeen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna errespetatuta.*
- c) Eraikinen antolamenduari buruzko legerian eta aplikatu beharreko araudi teknikoan aurreikusitako baldintza objektiboak betetzea, funtzionaltasunari, bizigarritasunari, segurtasunari eta osasungarritasunari dagokienez.”*

Era berean, 7. artikuluan, etxebizitza duina eta egokia disfrutatzeko eskubidea eta etxebizitza edo ostatu bat legez okupatzeko eskubidea ezartzen dira, eta horrez gain, aurreikusita dago, Eusko Jaurlaritzak, eskumenak dituzten organoen bitartez eta tokiko erakundeek eta etxebizitza alorrean eskumenak dituzten erakunde publikoek, eskubide hori egikaritzea zainduko dutela.

Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek etxebizitza bat legez okupatzea sustatu behar dute eta xedapenak eta beharrezko neurriak ezarri behar dituzte, edo hala badagokio, etxebizitza bizigarririk ez dutenek, edo izanez gero, segurtasun baldintzak betetzen ez badira edo beraien beharrak betetzen ez badira, zuzkidura ostatu bat izateko neurriak ezarri behar dituzte.

Aurreko araubide aurreikuspenak eta sistema publikoen arteko lankidetzari eta koordinazioari buruzkoak (3/2015 Legearen 2.1.art. eta Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 45.1. artikulua) aplikatuz, duintasunarekin bizitzeko, intimitatea izateko eta familia eta gizarte harremanak disfrutatzeko etxebizitza egonkor bat izatearen beharrari erantzun behar zaio.





8. Laburbilduz, Arartekoaren ustez, ezin da onartu Gasteizen zenbait familia 21 Zabalgunea sozietatearen jabetzako eraikin batean bizitzea bizigarritasun baldintzak bete gabe eta Sars-Covid 19-aren krisi sanitarioagatik ezarritako betekizunak bete gabe.

Ondorioz, Gasteizko Udalak beharrezko jarduketak egin beharko lituzke, une honetan bermatzeko osasun eskakizunak betetzen direla, eta horretarako neurriak ezarri beharko lituzke. Neurri horiek behin-behinekoak izan daitezke, bakarrik gaur egungo krisi egoeran aplikatzekoak, besteak beste aldi baterako ur hornidura berrezartzea edo gizarte baliabideetan ostatu ematea osasun krisiak iraun bitartean.

Edonola ere, beharrezkoa da alderdi kaltetuekin akordio bat egitea familia horiek eraikin horretatik irtetea planifikatzeko, eta hori guztia, eskumenak dituzten administrazioekin lankidetzan eta koordinazioan, eta horrez gain, gaur egun eraikina okupatzen duten pertsona eta familien etxebizitza beharrei buruzko diagnostikoa egiteko aukera jaso beharko litzateke akordioan.

Adingabeak dituzten pertsonak eta familiek eraikina okupatzen jarraituz gero ur eta elektrizitate hornidurak bermatuta izan gabe eta bizigarritasun baldintzak bete gabe, arrisku egoera sortzen da, eta administrazio publikoek horri erantzun behar diote.

Horregatik guztiagatik, iradokizun hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

IRADOKIZUNA

Azaldutakoa kontuan hartuz, Sars-Covid19-aren egoera honetan, Gasteizko Udalak beharrezko neurriak ezarri ditzala Olarizu etorbideko 21 Zabalgunea sozietatearen eraikinean bizi direnek ur hornidura dutela bermatzeko, edo bestela, kaltetuen baimenarekin, gizarte baliabideetan bestelako etxebizitza aukera bat eskaini dezala.

Edonola ere, Arartekoak, Gasteizko Udalarari gomendatzen dio planifikatzeko familia horiek eraikinetik nola aterako diren, eskumenak dituzten bestelako administrazioekin lankidetzan eta koordinazioan, betiere, etxebizitza beharrak aztertu ondoren eta horretarako dauden baliabide publikoak kontuan hartuz.

